

noaua


Larunbat honetan,
Erabaki Fest


NOAUA! APP, gure edukiak
orain klik bakar batean

A photograph of Antton Olariaga, an older man with a grey beard and mustache, wearing a dark jacket over a checkered shirt. He is standing in a library, pointing with his right hand at a large whiteboard. The background shows bookshelves filled with books. The text is overlaid on the whiteboard area.

Antton Olariaga
Gidoigarriak marraztu eta
marrazkigarriak gidoitzen
dituen norbait


Usurbilen,
zure auto-tailerra

Esena  Ramon



Atallu
AUTOAK

Motorra
Balaztak
Mekanika
Esekidurak
DOHAZNIK IAT-aurrekoa
Pneumatikoak
Ihes Kanalizazioak
Injekzio Elektronikoa
Berehalako Zerbitzua



EuroTailer

Atallu industrialdea, Oria kalea 4 / Usurbil 20170 / 943 37 74 78 / atalluautoak@gmail.com



**FUNERARIA
GONZALEZ**
EHORZTETXEA

munalurra 8, USURBIL

AURTEN HILERRI ZAHARRAREN ITXIERA:

- GORPUZKI ETA HILOTZ-HONDARRAK ZUEN KABUZ KUDEATU NAHI BADITUZUE GUZTIAZ ARDURATZEN GARA:
- HILERRI ZAHARRETIK ATERA ETA ERRAUSTEAZ
- HILERRI ZAHARRETIK BERRIRA ERAMATEAZ

(IZAPIDE GUZTIAK EGITEN DITUGU: OSASUN SAILEKO BAIMENAK, UDALA, ERREGISTRO ZIBILA, OSASUN-GARRAIOA ERRAUTS-LABERA EDO BESTE HILERRI BATERA...)

OSASUN SAILAK BAIMENDUTAKO ENPRESA GARA (ERREG ZB: F18)

943 36 21 63 (24H)

AURREKONTU ETA INFORMAZIOA KONPROMISORIK GABE



- BEILATOKI GUZTIAK - ERRAUSKETAK
- EDOZEIN ASEGURU IZANDA (**OCASO, SANTALUCIA...**) HERIOTZA GERTATZEN BADA, DEITU ZUZENEAN GURE BULEGORA 24H. GUZTIAZ ARDURATZEN GARA

**USURBILGO
LANBIDE
ESKOLA**

CIFP USURBIL LHII

Erdi eta goi mailako zikloak
A, B eta D Ereduak

www.lhusurbil.eus



Administrazioa Elektrizitate-elektronika Fabrikazio mekanikoa Energia eta unitateko produktioa, instalazioa eta mantentzea

**Maiatzak 6, 10 eta 13
ATE IREKIAK**

*Ordutegia: maiatzak 6 eta 13, larunbatak 11:00etan eta maiatzak 10, asteazkena 18:00etan

943 36 46 00



**IZATEKO GOZATZEKO
GUNE BAT UNE BAT**

MAXA dortokaren abenturak

8 txanda aukeran...

6 egun piraten altxorra aurkitzeko,
Kantauri itsasotik nabigatzeko,
piraten ibilbide zirraragarriak ezagutzeko,
hondartza eta igerilekura joateko,
abenturak irrati uhinetatik hedatzeko...

NON
Arrokaundieta aterpetxean
Pasai Donibanen
(Gipuzkoan)

NORENTZAT
2005 eta 2010 artean
jaiptako haurrentzat

PREZIOA
260 euro



INFORMAZIOA ETA IZEN-EMATEA:
www.urtxintxa.eus
943270033

Urtxintxa  

Albiste irudituan

Baionako Bernat Etxepare lizeokoak bisitan

Bisitariz bete zitzaigun herria apirilaren 8an. Batetik, 5. Dantza Egunera etorritako dantzari eta zaletuekin, eta haiekin batera, Baionako Bernat Etxepare Lizeoko hezitzaile eta ikasle talde bat ere gure artean izan genituen. Egunpasa Usurbilgo Udalean hasi zuten, udalbatza aretoan egin zitzaien harrerarekin. “Oso pozgarria da guretzat Iparraldeko gure lagunak hemen izatea. Beti izango zarete guretzat senide”, adierazi zien udalaren izenean, Xabier Arregi alkateak.

Usurbil aurkeztu zien segidan. Herri euskalduna dela gorapatuz, “euskara guretzat balore oso garrantzitsua da, zaindu beharrekoa”, nabarmendu zuen alkateak. Euskal kulturari atxikia dagoen udalerrria dela gaineratu zuen, bi alkate dituen; Udalekoaz gain, gogorarazten zuenez, “usurbildarrok sagardoa dugu alkate”. Sagardoa edari soila baino gehiago da usurbildarrentzat, “inguratzen duena ere kulturatzat dugu”, zioen Arregik.



Elkartasun kanpainako sagarrondoetako bat, Udarregi Ikastolako atarian landatu zuten.

Sagarrondoaren landaketa eta ibilaldia
Udaleko harreraren ondoren, elkartasun kanpainako sagarrondoetako bat, Udarregi Ikastolako atarian landatu zuten.

Handik abiatu zuten gero, Jakoba Errekondo paisajista gidari zutela, Kaxkoa eta Kalezar ingurutik barrena, sagastien paisaia kulturala ezagutzeko osatu zuten ibilalditxoa.

Laburrean

Ostiral honetan, elkarretaratzea

Euskal preso eta iheslarien eskubideen aldeko elkarretaratzea ostiral honetan, apirilaren 28an, arratsaldeko 20:00etan Mikel Laboa plazan, Usurbilen Nahi Ditu gu bilguneak deituta.

Larunbatean, kantu-jira

Apirileko azken larunbata hemen da. Hilaren 29an kalejiran irtengo dira Kantu Taldekoak, arratsaldeko 19:00etan Mikel Laboa plazatik abiatuta. “Har ezazue liburuxka eta zatozte elkarrekin kantatzera”.

Haur Eskolako matrikulazioa

Ostiral honetan itxiko dute, 2015, 2016 eta 2017an jaiotakoiei zuzenduriko 2017-18 ikasturterako matrikulazioa Haur Eskolan. Matrikulatzeko hitzordua eskatu behar da aurrez: 943 374 061 (08:30-12:00).

noqua

Kultur Elkarte

Bordaberri, 3 - Eguzkitzaldea. 20.170 Usurbil

943 360 321 ||| elkartea@noaua.eus ||| www.noaua.eus

Jendaurreko ordutegia: 10:00 - 14:00 / 16:00 - 19:00 astegunetan

Elkarteko lehendakaria:

Idoia Torregarai.

Aldizkari koordinatzailea:

Imanol Ubeda.

Idazkaria: Aizpea Aizpurua.

Publizitatea: Beatriz Alda,

publizitatea@noaua.eus

Diseinu berria: Erroitz S. L.

Erredakzio kontseilua,

erredakzioa@noaua.eus:

Imanol Ubeda, Aritz Lasarte.

Banaketa: Jon Galbete, Ekhi

Arrieta.

Laguntzaileak: Lontxo Zubiria,

Maria Angeles Arruti, Ainara

Arnaiz, Unai Aizpurua, Maria

Jesus Urbietta, Maddi Galbete, Ana Urdangarin, Maddi Zaldua, Iñaki Larrañaga, Pako Agudo, Jon Etxabe, Alazne Begiristain, Denis Elortza, Pello Aranburu, Xabier Aranburu, Inma Balda, Luis Aranalde, Nerea Zinkunegi, Maialen Unanue, Ugaitz Agirre, Joxe Piñas,

Unai Agirre, Idoia Torregarai eta

Udarregi ikastola.

Tirada: 2.800 ale.

Lege-Gordailua: SS-668-96

ISSN: 1136-6818.

Inprimategia: Antza. Zirkuitu Ibilbidea, 2. 20160 Lasarte-Oria.



EUSKO JAURLARITZA GOBIERNO VASCO

HEZKUNTZA, HIZKUNTZA POLITIKA
ETA KULTURA SAILA

Hizkuntza Politikarako Sailburuordetza

Hezkuntza, Hizkuntza Politika eta Kultura Sailak (Hizkuntza Politikarako Sailburuordetzak) diruz lagundua.



Usurbilgo Udala



Gipuzkoako Foru Aldundia



Euskal presoak

Euskal Herrira!



Luis Aranalde

Autobus transfoboa

Duela hiruzpalau aste autobus baten berri izan genuen: “Hazte Oir” ezaguna. Autobus transfoboa da, familia eta balore tradizionalen aldekoa eta transexualen aurkakoa. Dirudienez ultra katolikoak daude ekimen horren atzetik. Jende honen ustez munduaren printzipioak behin betirako finkatuak daude, gauza berriak susmagarriak dira beti; lege naturala aldarrikatzen dute eta lege horretatik ateratako printzipio moralak negoziatzen dira. Garai bateko inkisizioaren jarraitzaile sutsuak direla esango nuke.

Europar Batasunaren Oinarriko Eskubideen Gutunaren 21. artikuluan debekatu egiten dira sexu joera dela eta egiten diren diskriminazioak eta bazterketa mota guztiak; baina, muturreko katoliko horiek lege zaharagoetan murgiltzen dira, “suarekiko zaletasun handia zuen kofradia baten garaikoetan edo”, Aritz Gorrotategik kazetariak dioten gisa.

Egiten ari direna gorrotoaren diskurtsoa da: izan ere, pertsona transexualen

duintasuna urratu dute. Pertsonak ezin dira iraindu, ez taldeka, ezta banaka ere; ezin da haien duintasunaren kontra egin. Helburu nagusi bat izan du autobus horrek: transexualen errealitatea ukatzea. Hiri askotan (Iruñean, Madrilen esate baterako) gerarazi egin dute autobus transfoboa. Nire ustez ongi egina: izan ere, mezua mozorrotzen saiatu badira ere, badakigu ondo asko zein den.

Zinema eta giza eskubide zikloan transexualtasuna gaztetxoengan gaia jorratzen duen pelikula bota dute Victoria Eugenia: “just a normal person” (pertsona normala naiz); debate bat izan zen ondoren. Filmak kontatzen duena zera da: Isabelle eta Sam neska bikien istorioa. Isabelle txikitan konturatu zen nahiz eta neska jaio mutila sentitzen zela eta handitzen zenean aita izan behar zuela. Gaur 22 urte ditu eta bere benetako bidearen bila dabil. Gizarteak ez dio erraztu ibilbide hori. Pelikularen ondoren 8 minutuko material audiovisual bat ere estreinatu zen gaztetxoan transexualtasunari buruz. Chrysalis Euskal Herriak sortua da dokumentala.

Aitzindaria da lan hori. Aurti Interneten deskargatu ahal izango dugu.

Oraintxe bukatzeaz daukat Diego Neria transexual ezagunak idatzi duen autobiografia: “El despiste de Dios”. Nonbait Jainkoaren nahasketa baten ondorioztat jotzen du bere kasua. Liburu oso interesgarria, gozamen huts, aitaren batean irakurtzen dena. “Neska daniarra” artikuluan aipatzen nuen Diegoren kasua, alegia, Aita Santuak nola eskatu zien berari eta bere bikote Macaranari Erromara joan zitezela. Lehenbiziko aldiz Aita Santu batek hartzen zuen Erroman transexual bat.

Liburu horretan dakartzen datu batzuk: nerabeen artean % 50ek suizidatzeko asmoa izan du 20 urte bete aurretik; bi egunez behin transexual bat hiltzen dute munduan zehar; Hego Amerikan batz best 35 urtera gehiena jota iristen dira transexualak. Gizarteak estigmatizatu egiten ditu eta zanpantu labezomorroak gisa.

Hazte Oir taldeko Arsuaga presidenteari gutun bat idatzi zion duela aste batzuk. Besteak beste, galdera batzuk egiten dizkio: “Noizbait ezagutu

al duzu gertutik transexual bat? Ba al dakizu zein eragozpen latzak gaintitu behar dituen egunero gorputz arrotz batean sentitzen den gaztetxoak? Kanpaina hau bultzatu aurretik transexual semeren bat daukaten gurasoekin harremanetan jartzen saiatu al zara? Inoiz pentsatu al duzu zuen etxetako batean mutil edo neska transexual bat jaio daitekeela? Transexualtasuna ez da aukeratzen. Genitalek bakarrik ez dute definitzen pertsona. Lasai al daukazu kontzientzia? Ez al zen egoikiagoa izango kanpaina horretan gastatu duzun dirua beharrean dauden haurrak elikatzen edo txertoa jartzen erabilteza?”.

Liburuaren bukaera aldean honela dio: “Nire historia honek irribarre bat eragiten badizu, hunkitzen bazaitu edota esperantzaz jantzi, kontent geldituko naiz. Eta zure bizitzaren ibilbidean ‘ezberdin’ den norbaitekin topo egiten baduzu, ireki ieazkiozu zure besoak eta eskaini irribarre bat, zorionsu bihurtuko duzu eta”.

Aritz Gorriti | Imanol Ubeda | Maialen Unanue | Garazi Lizaso Manterola | **Luis Aranalde** | Idoia Torregarai | Luken Arkarazo

Komikia



TOKIKOMeko hainbat hedabidek sustaturiko tira komikoa.

Oreka TX taldeak kudeatuko du Txokoaldeko geltokia

Txokoaldeko geltokian kultur proiektu berri-tzaileak garatzeko deialdi irekia egin zuen Udalak urte hasieran. Oreka Tx taldeak aurkezturiko proposamena izan da hautatua. Txalaparta taldearen egitasmoak lau oinarri hauek izango ditu:

Txalapartaren txokoa

Txalapartariak elkartzeko espazio ireki bat izango da. “Material ugari dugu (egurra, harriak, banbuak, toberak, bidoiak, zeramika, teilak...) gure ibilbidean landu eta aztertu ditugunak eta espazio ireki honetan, txalapartariak beren entsegu edo lan ezberdinen prestakuntzarako erabili ditzakete”, Oreka Tx-koek aditzera eman dutenez.

Sorkuntza prozesuen erakusgarri

Oreka Tx taldearen sorkuntza prozesuen erakusgarri ere izango da Txokoaldeko Gelto-



Ekitaldi ireki bat iragarri dute maiatzaren 5erako.

koa. Ikastetxe, kultur talde edo norbanakoentzat, alde zurretik hitzordua ipinita.

Bisita gidatuak

Ereiten zerbitzu enpresarekin harremanetan dira. “Usurbilgo Udalarekin batera antolatzen dituzten ibilbideetarako, interesgarri jo dute Txokoalden proposatzen dugun Geltoki proiektua. Txalapartaren iragana azalduko dugu, hastapenak, instrumentuaren garapena, baita gaur egun bizi duen hedapena eta

musika estilo ezberdinekin duen lotura ere”.

Txokoaldetik haratago

Usurbilen kultur talde ugari dago eta “Geltoki proiektuan burutzen dugun lanaren berri gure eskutik jaso ahal izango dute”, Udaletxera aurkeztu zuten txostenean jasota dagoenez.

Maiatzaren 5ean, Geltokiko ateak zabalduko dituzte. 18:30ean egitasmoaren berri emango dute eta 19:00etan entsegu irekia eskainiko dute.

Ika-Mika

Euskal Herri Independenteari BAI!

2017a erabakitze urtea da, orain urte batzuk erabakitze eskubidearen aldeko mugimendua hasi zen eta gaur harro esan dezakegu Euskal Herriko txoko askotara iritsi dela hazten ari den olatua.

Euskal Herriarroi dagokigu gure Herria nazio zein Europa mailan kokatzea. XXI. mendean ez dira arrotzak euren buruaren jabe egin diren herrien urratsak, dozenaka dira aurreko mendean independizatu diren herriak eta ez dira gutxi hamarkada honetan erreferendum bat egitea aurreikusten dutenak: Eskoziak, Katalunia edo Faroe uharteak tarteko.

Makina bat lan daukagu egi-

teko. Jada 38 herrietako biztanleek aukera izan dute bozkatzeko Goierriin abiatu eta Euskal Herriaren luze eta zabalean hedatzea asmo duen erabakitze eskubidearen olatuarekin.

Euskal herritarren garaia da. Eta Usurbilen ere hartu da olatua, Herrizartuk 3 galdera proposatu zituen, eta ze galdera erantzun nahi duen esan du Usurbilek, orain maiatzaren 7an dugu galderari erantzuna emateko aukera. Nahi al duzu Euskal Herria Estatu independentea izatea?

Usurbilgo Ezker Abertzaletik maiatzaren 7ko egunak duen garrantzia azpimarratu nahi dugu, erabakitze eskubidea-

ren alde urrats garrantzitsu bat ematera goaz, independentziaren bidean urrats handi bat ematera goaz, erabaki nahi dugula esatera goaz, eta Ezker Abertzaletik Euskal estatu independente batean bizi nahi al dugun galderari BAIezko borobil bat ematera goaz. Ez dagoelako etorkizun oparorik espainiar estatuan, gure buruaren jabe izan nahi dugulako, Euskal Herriarrok garelako. Erabakitze eskubidearen olatua hasi da, baiezkoa tsunami bat izan dadila! Bete ditzagun hautetsontziak, Independentziari bai! Gora Herria!

Usurbilgo Ezker Abertzalea (Sortu, Ernai, LAB).

Maiatzaren 5ean “Erresidentzia orain” ekitaldia Sutegin

Santuenerako Gure Elkartea, Aginagako Arrate eta Usurbilgo Gure Pakea Elkarrekin “Erresidentzia orain” ekitaldia antolatu dute maiatzaren 5erako, ostirala, arratsaldeko 18:30ean Sutegin.

Mozioa udaletxean

Usurbilek duen erresidentzia baten beharraz jardungo dute hitzordu honetan. Lehenik eta behin, Julen Etxeberria eta Aritz Berastegi arkitektoen azalpenak entzun ahal dira. Eta segidan, gai honi buruzko adierazpen bat ezagutzera emango dute, geroza mozio gisa erregistratuko dutena Usurbilgo Udalean, hurrengo osoko bilkuran aztertu eta bozkatua izan dadin. Usurbilek erresidentzia baten beharra baduela aldarrikatzen dute ekitaldi honen antolatzaileek. 65 urtetik gorako mila herritar baino gehiago bai baitaude udalerritan.

Gutxieneko zerbitzuak Euskotrenen

Azken hilabeteotako lan uzteekin segitzen dute Euskotrenen Amarako eta Arasoko geltokietako langileek. Ostegun honetarako, apirilaren 27rako, gutxieneko zerbitzuak finkatu dira, 6:25etik 8:35era, eta 17:25etik 19:35era.

Informazio gehiago:

- euskotren.eus
- 944 333 333
- @euskotrenEJGV (Twitter)
- Lan uzteak egiten ari diren langileen berri: Euskotren Amarako Langileak (Facebook) edo @EuskotrenAmaraka (Twitter).

Lehen Hezkuntzan ere konfiantzaren pedagogia sustatzen

Konfiantzaren pedagogia geroz eta maila gehiagotara hedatzen doa Udarregi Ikastolan. Emaizekin oso gustura diren seinale. Haur Hezkuntza osoan abiatu ostean, Lehen Hezkuntzako lehen mailan jarri dute martxan amaitzear den ikasturte honetan. Eta datorren 2017-18koan, bigarren mailara zabaldu asmo dute. Urrats hauek emateko beharra ikusten zuten ikastolan, Haur Hezkuntzan hasitako lanketari Lehen Hezkuntzan jarraipena ematekoa, “koherentzia pedagogikoa bermatze aldera”.

Eta aldaketa bati buruz ari baikara; ziklo batetik bestera igarotzerakoan egon ohi den jauziaz. Aintzakotzat hartzeko moduko aldaketa izan ohi da ikasleentzat, duela urte batzuk “hezkuntza mahaian landutako trantsizioen inguruko dokumentuan, ikasleen hezkuntza ibilbidean bereziki zaindu beharreko aldaketa momentuetako bat”, Udarregi Ikastolatik NOAUA!ri aditzera eman diotenez.

Emaitza oso onak

Haur Hezkuntza osoan konfiantzaren pedagogian hazi eta hezten aritu den lehen ikasle taldea Lehen Hezkuntzako lehen mailara igaro da aurten. Etapa aldaketa hau leuntze aldera, aipatu moduan, konfiantzaren pedagogia txertatu dute maila honetan ere.

Apustu berri honek bi zikloetako hezitzaileen elkarlan eta koordinazioa eskatu du. Haur Hezkuntzako lehen mailako hezitzaile Eli Eizagirre eta Nekane Garmendiarekin bildu da aldizkari hau eta pozik agertu dira azken hilabeteotan txertatutako berrikuntzekin izan dituzten emaitzengatik. “Ikasleak piloa ikasten ari dira.



Haur Hezkuntza osoan abiatu ondoren, Lehen Hezkuntzako lehen mailan jarri dute martxan ikasturte honetan.

NEKANE GARMENDIA

Jolastuz, espermentatuz, esku lanketan, matematika, idazketa, plastika.... Ohiko ikasgaiak jorratzen dituzte, modu berritzailean. “Edukia erraz jasotzen dute horrela eta helburuak betetzen ditugu”

Beste urteekin alderatuta, akademikoki emaitzak oso onak dira. Gu oso gustura gaude”, dio Elik. Argi dute aurrean dituzten ikasleek Haur Hezkuntzan landu zutena ezin zutela bat batean eten, “apurtu egin go genuen orain arteko ibilbidea”.

Txokoetan

Konfiantzaren pedagogian hezten segitzeko, ikasgelako espazioan edota eguneroko jardunean egokitzapenak txertatu behar izan dituzte. Txanela proiektua lantzen segitzen dute orain arte bezala, baina aipatu proiektua konfiantza-

ren pedagogiarekin bateragarri egitea ahalbidetu dute. Begi bistakoak dira aldaketak. Ikasgelara sartu besterik ez dago. Betidanik ikasleak mahaian bueltan eserita ikustera ohituak ginen arren, konfiantzaren pedagogiarekin ordea irudia oso bestelakoa da; ikastea erakargarriago zaie orain ikasleei.

Bazkalosteko saioetan, arratsalde gehienak mugimendu librean igarotzen dituzte ikasleek. Hiru gela dituzte eta gela batetik besterako joan etorrietarako pasilloa. Gune guztiotan gaikako txokoak egokitu dizkiete hezitzaileek. Txokoetan parte hartzeko izen emate txartelak izaten dituzte ikasleek. Denbora zehatz bat egiten dute txoko bakoitzean, txirrina entzun arte. Orduan, txokoz aldatu behar izaten dute. Guneok aforo mugatua dute ordea, eta honatx ikasleentzako lehen ikasgaia. “Txoko batean aforoa betetzen bada ezin du beste inork bertan egon, baten bat joan arte. Txandak errespetatu behar dituzte eta ikasi behar dute. Eta ikasi dute”, adierazi digu Nekane.

Esperimentazioa ikasbide

Jolasten aritzen dira guneotan, baina beti ere ikasiz. Jolastuz, espermentatuz, esku lanketan, matematika, idazketa, plastika.... “Edukia erraz jasotzen dute horrela eta helburuak betetzen ditugu”, dio Nekane.

Txokoak eduki aldetik ondo baino hobeto diseinatu eta pentsatuak daude. Guneotarako materiala sortu dute, prestakuntza espezifiko jasotzen ari dira hezitzaileek. “Ez dira txoko finkoak, garatuz doaz”, dio Elik.

Berrikuntzek ekarritako onurak begi bistakoak dira. Klase orduak arinago igarotzen zaizkie orain ikasleei. “Umeak lanean ikustea gozagarria da. Lehen, arratsaldeetan nekatuta iristen ziren ikasgelara, mahai gaineko lanak eskatzea ere gehiegizkoa izaten zen. Orain lanean ari dira, baina lasai, ondo, eta gustura”, dio Elik. Jolasez gain, lan egin behar izaten dute eta noski, ikasleek.

“Horrela errazago heltzen zara ikasle bakoitzarengana”

Esperimentaturikoa gero ohiko lan egiteko moduan, fitxetan islatu behar dute. Astero, matematika, plastika edota hizkuntzari lotutako derrigorrezko zenbait lan egin behar izaten dituzte. Aste oso bat dute lanok egiteko. Baina hemen dator beste berrikuntzetako bat; lanok egiteko duten denbora ikasleek kudeatzen dute. Planteamendu honetan, LH 1eko hezitzaileek adierazi digutenez, lanok derrigorrezkoak izan arren, “egin nahi izaten dituzte”. Ikasleen jarrera positiboa nabarmentzen dute. “Aldea dago. Lan hau nork egin nahi du galdetzen baduzu, eskua berehala altxatzen dute ikasleek. Kexu izaten dira, lan bat egin denok behar dugula esaten badugu”, dio Elik.

Ikasitakoa barneratzeko moduan ere alderik bada. “Aukera ematen du lehen ez bezala,



“Oso metodo ona da, eskuekin egiten den lanketa bultzatzen baita”.

guk zerbait irakastean beraiek beraien modura aplikatzekoa. Denbora tarte bat izaten dute, ikasitako guztia beraien erara aplikatzeko”, gaineratu du.

Talde oso handia izanik, aldaketa honek hezitzaileei talde txikitik lan egitea, ikasle bakoitzari arreta pertsonalatuagoa eskaintzea ahalbidetzen die

hezitzaileei. “Horrela errazago heltzen zara ikasle bakoitzarengana”, dio Nekanek. Elik aipatzen duenez, premia bereziak dituzten ikasleentzako bereziki oso metodo ona da, eskuekin egiten den lanketa bultzatzen baita. Edukiak barneratzea hartara argigarriagoa eta errazagoa da.

Konfiantzaren pedagogia LH 1ean

■ Oinarriak: egunerotasuneko etxetik ikastolarako trantsizioa leuna izatea; umearen erritmoen errespetua; zirkulazio librea; esperimentazioaren eta manipulazioaren bidez ikastea.

■ LH1ean abian jarritako aldaketak:

1. 09:00-09:30 arteko harrera, zirkulazio librea.
2. Gelako espazioen birmoldaketa: bakarkako mahai kopurua gutxitu da; espazioa

sortzeko hormara jositako mahaiak jarri dituzte eta txokoka antolatu dira gelak (hizkuntza, matematika, eraikuntza, plastika, informatika eta jolas sinbolikoaren txokoak).

■ Zirkulazio librea aritzeko, behar adina espazio izan dezaten, hirugarren gela bat egokitu dute. Pasilloa ere erabiltzen dute.

■ Hiru arratsalde eta erdi, zirkulazio librea aritzen dira ikasleak. Matematika, hiz-

kuntza edo plastikarekin lotutako zenbait lan egin behar dituzte astean zehar. Ikasleek erabakitzen dute noiz egin.

■ Irakasleak lan pertsonalatuagoa egin dezake.

■ Material berria sortu eta eskuratu da, lanketa manipulatioak edota praktikoak egiteko.

■ Aurrera begira, bide honetan sakontzeko nahia dute “egin-dakoak baloratuz, hobekuntza bideak jorratuz eta zabalduz”.

Jolasten, ikasten

Esperientzia berritzaile hau, ikasgeletan egun egiten dutena gurasoekin partekatu dute hezitzaileek. LH1eko ikasleentako baten amak adierazi digunez, oso pozik da metodologia honekin. Ikasleei sormen, motibazio eta autonomia maila handiagoa eskaintzen diela adierazi dio NOAUA!ri. Irakurketa, idazketa edota ordenagailua erabiltzea asko errazten diela. “Badirudi jolastera bakarrik datozela ikastolara. Egia da, asko jolasten dute, baina jolas horiek oso ondo pentsatuak daude. Ideia eta helburu batekin. Haurrari sormen hori ateratzen uzten diozu”, adierazi digu. Nabarmendu duenez, oso ondo pasatzeaz gain, bere alaba “konturatu gabe ikasten ari da. Pozik eta alai jolasten, eta aldi berean ikasten”.

Emaitzekin hain gustura egonik, 2017-18 ikasturtean konfiantzaren pedagogia LH 2ra hedatuko dute. Nekaneren esanetan, emaitzak ikusita, “ez jarraitzeak ez du zentzurik”.

■ Eman asmo dituzten urratsak: 1.Espazioen inguruko hausnarketa egitea.

2.Material anitza eskuratzeko bitartekoak jartzea.

3.Ingelesa dinamika honetan txertatzeko aukera aztertzea.

4.2017-18 ikasturtean, LH 2. mailan lan egiteko modu hau txertatzeko asmoa.

Informazio gehiago:

udarregi.eus

943 361 216

Okindegia-Gozotegia
LABE-GOXO

URDAINTZI
eraikuntzak

649 43 54 75 / 76
943 36 72 64

urdaintzi@euskalnet.net

ERAIKUNTZAK-OBRAK-ERREFORMAK

ZALDIGAIN

ERREMENTARIA

- Burnia, inox, altzairua eta corten altzairuarekin lan egiten dugu.
- Barandilak, balkoiak, eskailera dekoratiboak, solairuak...

www.zaldigain.com • info@zaldigain.com
Tfno. 943593303 • Mugikorra: 677463867
Fax. 943300045

ARRANDEGIA
PELLO

PUNTAPAX 7
943 36 21 64
USURBIL

Erraustegia eraiki nahi duten eremuko lanen bigarren fasea martxan

Lanon bigarren fasearen baitan, biometanizazio planta bat eta zepentzako beste azpiegitura bat eraikitzea aurreikusten du Gipuzkoako Foru Aldundiak. Bi guneok, erraustegiarekin eta tratamendu mekaniko-biologiko plantarekin batera eraiki nahi dituzte. Eraikitze lanak edozein unetan hasi, 2019. urteko erdialdera amaitu eta urte bereko udazkenerako martxan egotea espero dute.

Lanen bigarren faseari ekiteko, Gipuzkoako Foru Aldundiko Ingurumeneko eta Obra Hidraulikoetako Departamenduak Gipuzkoako Hondakinen Kudeaketarako Azpiegituren Lurralde Plan Sektoriala (LPS) aldatzeko tramiteak abiatu ditu. “Hirigintza-dokumentu honen aldaketa beharrezkoa da Gipuzkoako Ingurumen Gunearen bigarren fasea garatzeko”, berri eman du Aldundiak. Oinarrizko proiektua landu asmo du Aldundiak eta Ingurumen Baimen Bateratua eskatuko dute fase honetarako.

25-35 milioiko kostua

Bigarren faseko lanok, 25-35 milioi euro arteko kostua izango dutela gaineratu du Aldundiak. 2018. urte hasierarako amaitzea aurreikusten duten bigarren fase honen tramitazioa ere martxan jarrita, ingurumen diputatu Jose



Hitzarmena sinatu ondoren, eraikitze lanak edozein unetan has daitezke.

ERRAUSTE-PLANTA

2019. urteko erdialdera amaitu eta 2019ko udazkenerako martxan egotea espero dute

Ignacio Asensioren esanetan, “Gipuzkoak hondakinen arazoari irtenbidea emango dio legealdiaren amaieran eta herritarrei egindako promesa beteko da”.

Abian diren ekimenak

Panorama honen aurrean, go-goan izan, eragile desberdinek abian dituzten ekimenok:

■ Usurbilgo Udala: “Usurbil 0.0”, etorkizunean hondakinen kudeaketa eredu propioa izateko bide-orria.

■ GuraSOS: abian dituen ekimen juridikoez gain, laster abiatzeko da “Hitza Hartu”, aurrekaririk izan ez eta gizarte zibiletik martxan jarriko den hondakinen kudeaketaren inguruko parte hartze prozesua.

■ Errausketaren Aurkako Mugimendua: aurkeztua du erraustegia alboratzen duen alternatiba jasangarri, merkeago eta osasuntsuagoa. Milaka herritarrek babestu zuten alternatiba, martxoaren 25ean Donostian egin zuten manifestazioan.

■ Gipuzkoa Zutik: Gipuzkoako Foru Aldundiari erraustegiaren kontratua erakutsi dezan eskatzeko sinadurak biltzen ari dira change.org atarian. Ia 3.000 atxikimendu bildu dituzte jada.

Urbaser miatu dute

“Canal de Isabel II” ur konpainia publikoan ustez eginiko fondo-desbideratzea dela eta, “Lezo” izeneko polizia operazioa burutu zuten aurreko astean Madrilen. Madrildo Er-kidegoko presidente izandako Ignacio Gonzalez (PP) atxilotu zuen poliziak eta hainbat miaketa ere egin zituen. Tartean, erraustegia eraiki eta hurrengo 35 urteotan kudeatzeko ardura duen Urbaser enpresak Madrilen duen egoitzan. Antza, Guardia Zibila hainbat dokumentazioz jositako hamar kaxa baino gehiago bildu zituen bertan. Florentino Perezek zuzenduriko ACS enpresa taldeak CNTY txinatarrari saldu zion Urbaser, aurreko udazkenean.

Patri
latetxea

bazkariak EGUNERO
afariak, asteazkenetik larunbatera

© 943 362725 · © 688 690 361

Zuen
publizitatea
hemen

943 360 321
publizitatea@noaua.eus

ETXETRESNEN
KONPONKETAK
azkar, prezio onean MARKA GUZTIAK
20 URTEKO ESPERIENTZIA

645417665
XABIER
Usurbil

Josue
Igeltseritza

606 37 21 05
Atallu pol.28 USURBIL

BAZKIDEEN TXOKOA



*Maiatzak 6, larunbata,
22:00etan
Suteqiko auditorioan*

**"Itzal zaunka"
kontzertu irudikatua**

Noaualko bazkideen artean 2 sarrera zozketatuko ditugul

noaua! euskararen aterpe

Bazkide egiten bazara. Opari eder bat jasoko duzu eta zozketa hauetan parte hartzeko aukera
943 360 321 / elkarte@noaua.eus



UDABERRIKO
ESKAINZA:
GERANIO m14
1,95€!

URTINEA

**Jantzi kolorez zure etxe,
balkoi zein lorategia!**

Era guztietako aukerak oparitzeko:
garaiko loreak, frutarbolak, loreontziak,
lore-sortak...

San Esteban Auzoa, Usurbil - Tel: 943 36 22 55

 *Baiezkoa esatea baino gauza ederragorik!*

2017KO MAIATZAREN 7AN
HERRI GALDEKETAN

ehbildu
USURBIL

B A I

Jaietako egitarau diseinu lehiaketa, martxan

Usurbilgo Udalak eta Jai Batzordeak antolatutako txapelketara lanak aurkezteko epea zabalik dago jada. Honatx kontuan hartu beharreko irizpide nagusiak:

■ Lehiaketa publikoa eta irekia izango da.

■ Saria: 500 euro eta diseinu txapeldunarekin argitaratuko da egitaraua.

■ Oharra: diseinurako testua eta informazioa jasotzeko gerturatu Potxoenean, idatzi kultura@usurbil.eus helbidera edo deitu 943 371 999 telefono zenbakira.

■ Lanaren neurria librea izango da.

■ Egitarauak irakurterraza izan beharko du. Euskaraz argitaratuko da. Irabazleak, eskuorri txikiago batean gaztelaniazko bertsioa maketatu beharko du.

■ Lanak euskarri digitalean (CD edo pendrive batean, PDF formatuan) eta paperean aurkeztu behar dira.

■ Lana originala, aurrez beste lehiaketetan parte hartu eta argitaratu gabea izango da.

■ Norbanako edo taldeak aurkeztu behar dira. Taldean aurkeztuz gero, taldekide bat izendatuko da lanaren arduradun.

■ Nahi adina lan aurkeztu daitezke.



Diseinurako testua eta informazioa Potxoenean eskuratu daitezke.

MAIATZAK 22 ARTE

“Norbanako edo taldeak aurkeztu behar dira. Taldean aurkeztuz gero, taldekide bat izendatuko da arduradun”

■ Aurkeztutako lanetan hizkuntza eta irudien erabilera ez sexista bermatu behar da.

■ Lanen aurkezpena: maiatzaren 22a baino lehen helarazi behar dira bi gutunazalean Usurbilgo Udaleko erregistro-ra, edo postaz bidali behar da Usurbilgo Udalera (Kultura Saila, Joxe Martin Sagardia Plaza z.g., 20170 Usurbil). Proposamenak postaz bidaltzen direnean, posta-bulegoan bidaltzen deneko data justifikatu eta egun berean e-mail bat bidali kultura@usurbil.eus helbidera.

■ Proposamen bakoitzeko, bi kartazal aurkeztuko dira, eta hauen kanpoaldean, egilearen izen goitia, A edo B kartazal den eta Santixabel egitarauaren lehiaketa adierazi beharko da:

A kartazala: aurkezleari buruzko datuak bilduko dira: izen-abizenak edo elkartearen izena, IFZ/IFK, helbidea, telefonoa, helbide elektronikoa eta hura identifikatzeko behar den beste edozein datu.

B kartazalean: proposatzen den diseinua joango da, euskarri digitalean eta paperean. B kartazaleko dokumentazioan izen goitia ez den beste izenik erabiltzen bada identifikatzeko, eta izen horrek parte-hartzailea zein den jakiteko bidea ematen badu, parte hartzaile hori lehiaketatik kanpo geldituko da.

Txupinazorako hautagaiak proposatzeko garaia da

Ekainaren 29tik uztailaren 2ra ospatuko diren Usurbilgo jaiak abiatzeko txupinazoa nork jaurtitzea nahi duzuen adierazi dezakezue jada, proposamenak biltzeko Jai Batzordeak eta Usurbilgo Udalak maiatzaren 22ra arte zabaldu duten epea-

ren baitan. Bi bideetatik egin ditzakezue ekarpenak; kultura@usurbil.eus helbidera emailaz helarazita edo bestela, papertxo batean idatzi eta Oiarde Kiroldegian, Sutegi udal liburutegian eta Potxoenean aurkituko dituzuen kaxetan sartuta.



Maiatzaren 22ra arteko epea dago.

Errenta aitortzeko garaia

Errenta Aitorpen kanpaina betean gara. Zabalik dago autolikidazio proposamenak onartu edota Internet bidezko nahiz mekanizatuko modalitatezko errenta (aberrastasunarenak Internet modalitatez) aurkezteko epea.

Hitzordua eskatu edota informazio gehiagorako:

■ 902 100 040

■ gipuzkoa.eus/ogasuna

Oinarrizko iturgintza ikastaroa emakumeei zuzendua

Emakumei zuzenduriko ahalduzko ikastaro honetarako xehetasunak:

■ Epea: maiatzak 3-31, asteazkenero, Lanbide Eskolan.

■ Orduetgia: 17:00-20:00.

■ Izen ematea (doan): parekidetasuna@usurbil.eus 943 377 110

■ Antolatzaileak: Usurbilgo Udalak, Lanbide Eskola, Zubigune Fundazioa.

Kontratazioa gorantz martxoan

Otsailetik martxora, langabetu kopurua zertxobait igo da, 272tik 274ra. Haietatik 149, emakumezkoak dira, 125 gizonetzkoak. Buruntzaldean zertxobait behera egin du langabezia tasak; 3.742tik 3.726ra. Erregistraturiko kontratu kopurua nabarmen igo da, 297tik 372ra.

Aldi baterako, ia denak

Halere ia denak, 345 aldi baterako sinatu dira, 276 zerbitzuen sektorean. Gizonezko gehiago kontratatu dira, 198, emakumezkoak baino, 174.

ZURE EKARPENAK, EGUNEROKOAN ONURA. GOGOAN HARTU.

Aurten, aurrekontuaren ia erdia bideratu da gizarte politiketara. Ekonomia sustatzea eta enplegua sortzea ere lehentasuna dira. Hori, eta gehiago. Eta guztia, zu onuradun izan zaitezten.



- A** 8 milioi € Pasaialdea biziberritzeko.
- B** Erreferentziazko Zahartze eta Osasun Zentro Aurreratuaren sorrera Pasaian.
- C** Mendekotasun laguntzak jasotzen dituzte 16.000 pertsonak hilabetero.
- D** 5.000 pertsonak laguntza jasotzen dute etxean. Atsedeen programak zaintzailearentzako.
- E** Lurraldebus: erretiratuentzat tarifa bereziak, %100eko hobariekin.
- F** Kultur ekitaldi handiei laguntza: Zinemaldia, Jazzaldia...

Lanbide Heziketako materiala euskaratzen

'Laneki' euskara sustatzeko Lanbide Heziketako elkarteak da eta 2001az geroztik 860 moduluertarako 710 ikasgai euskarara egokitu dituzte. Jakinbai.eus webgunean euskarara ekarritako ikasmaterial guztia eskegita dago. Langintza horretan meritu handia dute irakasle bolondresak. Baina ezin aipatu gabe utzi erakunde ezberdinen sustengua, tartean Buruntzaldeko Udaletako euskara zerbitzua.

Laneki elkartean eta jakinbai.eus webgunearen sorburua gabezia batetik abiatzen da...

Lanbide Heziketan euskaraz irakasteko kezka hori aspaldikoa da. Irakasle talde batek ekin zion lanari, eta 2001ean sortu zen euskara sustatzeko Lanbide Heziketako Laneki elkarteak. Dereduaren alde egiteko apustua egin zen orduan. Ikasmateriala, ordea, erdaraz zegoen. Bestalde, ikasgaiak ugari dira: Lanbide Heziketan, zortzirehundik gora. Argialetxeen aldetik oso zail zegoen, eskaintza hain dibertsifikatua izatean ikasmaterial bakoitzaren hartzaile kopurua oso txikia delako. Ez zen, beraz, errentagarria. Bide hori alde batera utzita, irakasleak hasi ziren euskarazko ikasmateriala sortzen.

Laneki Helte Lanbide Heziketako ikastetxeen elkarteak eta Ikaslan Gipuzkoa Lanbide Heziketako Institutu Publikoaren Elkarteak sortu zuten.

Hasiera hasieratik webgune bat sortzea erabaki zen, digitalki eskegi eta zabaltzeko.

Internet erdigunean ipini zenuen. Oso garbi eduki zenuen hori...

Ekoizpen gastu handia saihestu genuen, eta ikasmateriala eraldatzeko eta berritzeko aukera eskaintzen digu webguneak. Abantaila horiei heldu diegu aurrera egiteko. Sarearen iraultza hori garrantzia handikoa izan zen euskarazko ikasmaterialak landu ahal izateko. Sortu dugun erremintaren antzeko eredurik ez dugu inon topatu, orain arte. Alta emandako 5.000 erabiltzaile ditugu, material hori eskuratu eta irakaskuntzarako erabiltzen ari direnak.

Urte urte ikasmaterial gehiago euskaratzen ari zarete. Oker ez bagaude, 2016an 41 ikasmaterial ezberdin euskaratu zenuen. Zeren arabera erabakitzen duzue zein den lehenta-



Kepa Altube Eraña ikasmateriala euskaratzeko ekimenaren kudeatzailea.

Andoain, Astigarraga, Hernani, Urnieta eta Usurbil herrietako udal laguntzari esker ikasmateriala euskaratzen dihardu Laneki elkarteak

sunezkoa?

Ikasturte hasieran, irailean, plangintza egiten hasteko irakasle taldeen artean galdeketa luzatzen dugu. Zerrenda jasotzen dugu, une honetan 80 proposamen ezberdin ditugu, eta ikasmaterial bakoitzaren hartzaile kopurua eta beste hainbat faktore kontuan hartuz, proposamen bakoitzari puntuazioa ematen diogu. Aurrekontuaren arabera euskaratzen dugu ikasmateriala, urtero-urtero. Irailetik abendura bitarteko prozesua da hori. Ondoren, argialetxe ezberdinekin euskaratu beharreko materialaren itzulpen baimenak negoziatu behar izaten ditugu. Diru zati handi bat baimen kontuetan joaten zaigu. Baimenak lortuta, euskaratzeari ekiten diogu.

Zenbaterainokoa da Buruntzaldeko Udalen ekarpenaren garrantzia?

Erabatekoa. Buruntzaldeko Udalen aldetik sostengu garrantzitsua jasotzen ari gara. Eta ez bakarrik sostengu ekonomikoa. Egitasmoarekin bat

egiten dutela sentitzen dugu: Zabalkundean laguntza ematen digute, ekarpenak egiten dizkigute. Harreman estua izaten dugu ikasturte osoan zehar. Eskualdeko euskara zerbitzuetako teknikariek eta Lanbide Heziketa ikastetxe ezberdinetako hizkuntza normalkuntzarako arduradunekin lortu dugun harreman horri garrantzia handia ematen diogu.

Lanbide Heziketari eta enpresa munduari lotuta, iaz garrantzia handia eman zitzaion Lanpres gidari. Ekoizpen lan hori ere zuena da. Zer da Lanpres?

Lanbide Heziketan euskaraz ikasitako ikasleak, maiz, enpresa munduan praktikaldia egitekoan, erdarara jotzeko joera izaten zuen. Eta hori bideratzeko eta zuzentzeko eskerra zehatza jaso genuen. Gida bat ekoiztea erabaki genuen, paperean eta internet sarean dagoena. Funtsean, ikasleak euskarazko praktikaldia egiteko argibideak eskaintzen dira gida horretan. Orain arte egiten ez zen galdera sinplea dago gidaren oinarrian: Enpresako instruktorea euskal hiztuna al da edo ez? Euskalduna baldin bada, informazio osoa eskaintzen zaio. Galdera sinple bat funtsezkoa izan daiteke. Dagoeneko praktikaldia egiteko idazkietan galdera hori txertatzea lortu dugu. Buruntzaldea

egitasmo berri horren eragile nagusietakoa izan da.

Gidak sei atal ditu, lau atal ikastetxeei bideratuta eta ikaslea praktikaldian hartuko duen enpresari bideratuta beste bi atal.

ESKUALDEAREN EKARPENA

Andoain, Astigarraga, Hernani, Urnieta eta Usurbil herrietako udal laguntzaren eta probintzia nahiz Euskadi mailako erakundearen finantziarioari esker ikasmateriala euskaratzen dihardu Laneki elkarteak. Buruntzaldeko Udalek 7.000 euroko diru ekarpena egin zuten iaz, eta egitasmo osoaren aurrekontua 186.000 eurokoa da.

IKASMATERIALA

Jakinbai.eus webgunean ehunka ikasgai eskegita daude, Euskal Herri osoko Lanbide Heziketa ikastetxeetan erabili ahal daitezkeenak. Euskaratutakoa ugaria eta zabala da, alor guztiei dagokiena. Besteak beste, administrazioa eta kudeaketa, elektrizitatea eta elektronika, eraikuntza eta obra zibilak, fabrikazio mekanikoa, garraio eta ibilgailuen mantentimendua, informatika eta komunikazioa, merkataritza eta marketina, osasungintza, ostalaritza eta turismoa, segurtasuna eta ingurumena, zurgintza, eta abar luzea.

LANPRES GIDA

Iazko berrikuntzarik nabarmenetakoa izan zen Lanbide Heziketan. Proiektuaren xedea Lanbide Heziketako ikasleek lantokiko prestakuntza eta ikasketa duala euskaraz egin ahal izatea da. Hori ahalbidetzeko, Eusko Jauriaritzak enpresetarako gida aurkeztu zuen. Lan horren ardura Laneki elkartearena izan zen.

Eskualdeko matrikulazio datuen aletzea

Derrigorrezko Bigarren Hezkuntzan eta Batxilergoan euskarazko eskaintza nagusi den heinean, Erdi mailako eta Goi mailako heziketa zikloetan aztertu beharreko fenomenoak gertatzen ari da. Datuei erreparatuta, Lanbide Heziketan tarteko eredu den B ereduak euskara hutsezko D ereduaren kontura hazten ari da. Bien bitartean, A ereduak ez da aldaketarik sumatzen. Izatekotan, pittin bat gorago egiteko.

Euskarazko heziketaren aldeko apustua egiten duten erakundeek aldetik, aztertu beharreko fenomenoak da Lanbide Heziketako maila ezberdinetan hizkuntza eredu bakoitzean garatzen ari den fenomenoak. DBHn eta Batxilergoan D ereduak nagusi den moduan, Erdi mailako eta Goi mailako zikloetan A ereduak pisu handia izaten jarraitzen du.

2015-2016 ikasturtetik aurrera tarteko eredu den B eredu ofiziala izaten hasi zenez, gorunzko igoera pairatzen ari da. Baina bitxia badirudi ere, igoera hori euskara hutsezko D ereduaren eskaintzaren kontura gertatzen ari da. Esan nahi baita D ere-

duan matrikulatutako ikasle kopurua jaisten ari dela B eredu ezarri denetik. Helburua ikasleak A eredutik B eredura erakartzea bazen ere, oraingo kontrako efektua gertatzen ari da. Ondoko taulan ondotoxo ikusten denez, A ereduak ez baitu jaitsierarik pairatu. Are gehiago, izan duen aldaketa gorunzkoa izan da. Zalantzarik gabe, hezkuntza eta euskara arloko eragileek ondo aztertu beharreko fenomenoak da. Oraindik ere A ereduak pisu handia dauka eskualdeko Lanbide Heziketa zikloetan.

Goi mailakoetan, gaur gaurkoz, ikasleek gehien aukeratzaren duten ereduak da. Eta Erdi mailan, bigarren aukera da.

MATRIKULAZIOA 2016-2017

DBH

Ikasturtea	Ikasleak	A	B	D
2014-15	2180	%0	%4,9	%95,1
2015-16	2134	%0	%5,8	%94,2
2016-17	2354	%0	%5,3	%94,7

BATXILERGOA

Ikasturtea	Ikasleak	A	B	D
2014-15	703	%6,8	%5,7	%87,5
2015-16	754	%7,2	%5,4	%87,4
2016-17	760	%5,3	%5,1	%89,6

ERDI MAILAKO HEZIKETA ZIKLOAK

Ikasturtea	Ikasleak	A	B	D
2014-15	379	%44,6	%25,6	%29,8
2015-16	413	%37,8	%31,5	%30,8
2016-17	418	%38,5	%46,9	%14,6

GOI MAILAKO HEZIKETA ZIKLOAK

Ikasturtea	Ikasleak	A	B	D
2014-15	1046	%45,9	%21,6	%32,5
2015-16	953	%45,4	%20,4	%34,2
2016-17	1069	%45,7	%22,5	%31,9



Andoain, Astigarraga, Hernani,
Lasarte-Oria, Urnieta eta Usurbilgo
Udaletako Euskarako Batzordeak
www.buruntzaldea.eus

11 aukera,
Lan 



Lanbide Heziketan ERE D ereduak

Hasi da galdeketaren aldeko kanpaina

U surbilarrek hitza hartzeko astebete pasatxo baino ez da geratzen. Maiatzaren 7rako antolatu duen herri galdeketa begirako prestaketa lanen azken txanpan da jada Herritzartu.

Erabakitze eskubidearen aldeko mugimendutik helarazitako ondoko argazkia dugu, horren guztiaren erakusgarri. Arantzazu Ugarte Herritzartuko kidea duzue irudian, Xabier Arregi Usurbilgo Udaleko alkateari maiatzaren 7an herri galdeketa ospatuko dela jakinarazten.

“Galdeketaren deialdi ofiziala egin dugu instantzia ofizialean, baimenak eskatu dira Herrizaingo Sailean eta era berean udaletxeari jakinarazi zaio galdeketa maiatzaren 7an egingo dugula. Beraz, ofizialki kanpainan sartuta gaude”, aditzera eman dute Herritzartutik.

Prestaketa lanak amaitzear



Arantzazu Ugarte Herritzartuko kidea duzue irudian, Xabier Arregi alkateari maiatzaren 7an herri galdeketa ospatuko dela jakinarazten.

LARUNBAT HONETAN

**“M7 erabaki”
esaldia irudikatuko
duen mosaiko erraldoia
osatu nahi da
herritarren laguntzaz**

dituztela ere azaldu dute. “Galdeketa eguneko zehaztasun guztiak lotuta daude, hautesguneen kokapena, mahaietan egongo diren herritarrek zozketa bidez aukeratuak,

bozka aurreratuaren egutegia eta ordutegiak, dena martxa onean doa eta azken egunetako antolaketa lanak eta bilerak izango ditugu hurrengo egunetan”, iragarri dute.

Gardena eta neutrala

Maiatzaren 7ko herri galdeketa onako printzipioak bermatuko ditu: “gardentasuna, publikitatea, argitasuna, informazioa eskuratzeko aukera, batzorde sustatzailearen neutraltasuna, emaitzaren zilegi-

tasuna, aniztasuna, berdintasuna eta diskriminaziorik eza, inklusioa, eraginkortasuna, datu pertsonalen babesa eta kontuak ematea. Gardentasuna ziurtatzeko, prozesuren amaieran izapide guztien inguruko informazioa, baita ekonomikoa ere, herritarren esku jarriko da. Herri galdeketa honek demokrazia parte hartzailearen filosofiarekin bat egiten du. Prozeduraren hasieratik eta bukaera arte, gizarte ekimena antolatzeko unean, zabalatasuna eta aniztasuna izango dira jomugak, galdeketaren bitartez erabakitze eskubidearen alde herrian egon daitezkeen sentsibilitateen bilgunea sor dadin”, Herritzartutik aditzera eman dutenez.

Aldez aurreko bozka ematea

Ostegun honetatik bertatik, alde aurreko bozka emateko aukera izango da Herritzartuk Etxebeste kalean duen egoitzan.

Aurrez ere eman daiteke botoa

Aurrez bozkatzeko aukera

Apirilak 27-28 | maiatzak 2-6

Herri kontsultarako aurrez bozkatzeko aukera Herritzartuk Etxebeste kalean duen egoitzan. Ordutegiak:

- Apirilak 27, 18:00-20:00.
- Apirilak 28, 19:00-21:00.
- Maiatzak 2, 18:00-20:00.
- Maiatzak 3, 11:00-13:00/18:00-20:00.
- Maiatzak 4, 18:00-20:00.
- Maiatzak 5, 19:00-21:00.
- Maiatzak 6, 11:00-14:00.

Bozketa eguna

Maiatzak 7, igandea

- 09:00-20:00 Galdeketa Usurbilen.



Maiatzaren 7an lau bozkaleku ipiniko dituzte Usurbilen.

■ Galdera: “Nahi al duzu Euskal Herria estatu independentea izatea?”.

■ Bozka lekuak:

-Kaxkoan: Kontseju zaharra kalea etxe atarian.

-Kalezarren: Haur Eskola eta Ugarte baserri ondoko markesina parean.

-Santuenean: Ibai Ondo elkarte

ondoko plazan.

-Aginagan: apaiz-etxean.

■ Informazio gehiago:

usurbilgureeskudago@gmail.com

Facebook: Gure Esku Dago Usurbil

Twitter: @GureEskuDagoU

Antolatzailea: Herritzartu
Elkartea.

Larunbat honetan, Erabaki Fest

Erabaki Fest jaialdia egun osoan Kaxkoan, Herritzartu eta Zubiartean elkarteek antolatuta:

■ 12:00 Mosaiko erraldoia, Mikel Laboa plazatik abiatuta: “M7 erabaki” esaldia osatuko da.

■ Eguerdian, zikiro jana frontoian.

■ 18:30 Elektrotxaranga.



Eguerdian zikiro jana egingo da frontoian.

“Euskal Herri independente bateko herritarra izan nahi al duzu?”

Zubietan elkarte eta manifestua aurkeztu zuten martxoaren hasieran, sindurak bilketa eta galdera adosteko prozesua abiatu zuten gero. Martxoaren 30ean adostu zuten galdera, Jarraipen eta Berme Batzordeak ere osatu eta aurkeztu zituzten apirila hasieran, baita galdera bera ere. “Euskal Herri independente bateko herritarra izan nahi al duzu?”. Maiatzaren 7an izango dute zubietarrek galdera honen gaineko iritzia emateko aukera, Zubiartean Elkarte antolatzen ari den herri galdeketa.

Hitzordu honetarako astebe- te pasatxo baino ez da geratzen, eta aipatu elkartetik berri eman dutenez, “Zubietan atzera kontuan sartu gara” jada. Segidan dituzue azken txanpa honetarako finkatu dituzten hitzorduak.

Laguntzaile premian

Galdeketa egunean mahaietan egoteko, bozkalekuaren segurtasunerako eta maiatzaren 7rako osatzen ari diren egitarauko ekintzetarako lagun-



Zubietan, apirilaren 9an eman zuten galdera argitara. Ondoren, bote luzeko partida bat jokatu zen. Usurbildarrak eta zubietarrak aritu ziren, aurrez aurre.

ZUBIARTEAN ELKARTEA

“Laguntzaileak behar dira. Izen emateko aukera dago ostiral honetara arte, apirilak 28, Zubietako Alamandegia eta Barazar tabernetan jarri diren izen emate orrietan”

tzaitzaileak behar ditu Zubiartean Elkarteak. Izen emateko aukera dago ostiral honetara arte, apirilak 28, Zubietako Alamandegia eta Barazar tabernetan jarri dituzten izen emate orrietan.

Bi batzorde

Galdeketa zilegitasun osoa emateko, bi batzorde eratu dituzte Zubietan:

Berme Batzordea (Usurbilgo berbera)

Partaideak: Olatz Altuna Zumeta, Lourdes Furundarena Etxeberria-Berreiarza eta Itsaso Gonzalez Ibirriaga.

Jarraipen Batzordea

Partaideak: Gabino Jauregi, Belen Zudaire, Maria Jesus Bengoetxea eta Haritz Illarriamendi.

Usurbilen zein Zubietan bozkatzeko, betebeharreko baldintzak

Bai Usurbilgo zein Zubietako herri galdeketa bozkatzeko bete beharko diren baldintzak eta aurkeztu beharko den dokumentazioaren berri, hemen:

■ 16 urte beteak izan eta kasuaren arabera, Usurbilen edo Zubietan erroldatua egotea.

■ Aurkeztu beharreko dokumentazioa:

A-Espainiako Estatuak herritartzat jotzen dituen pertsonen, ondorengo identifikazio

dokumenturen bat aurkeztu behar dute: Espainiako Nortasun Agiri Nazionalea (NAN); EHNA + 2017 errolda agiria; gidabaimena + 2017ko errolda agiria; edo pasaportea.

B-Espainiako Estatuak herritartzat jotzen ez dituen pertsonen, ondorengo identifikazio dokumenturen bat aurkeztu behar dute: bizileku txartela (Europar Batasuneko kide ez diren Estatuotako herritarren kasuan);

jatorrizko Estatuak jaulkitako nortasun txartela edo pasaportea; nortasun txartela edo agiria; edo gidabaimena + 2017ko errolda agiria.

■ Oharra: Aurkezturiko identifikazio-agiria iraungita badago, helbiderik ez badu edo beste herri batekoa badu, errolda agiria aurkeztea behar beharrezkoa izango da (aurkezturiko agiria baino berriagoa eta 2017koa, beti ere).

Datozen ekitaldiak

Apirilak 28, ostirala

■ 20:00 Ekitaldia Kaxkapen: “Helmugarik garrantzitsuen BIDEA denean” dokumentala proiektatuko dugu, Goierriin 2016ko ekainaren 5ean egin zen herri galdeketa buruzko dokumentala hain zuzen. Era berean, Zubietako herri galdeketa buruzko zuzeneko azalpenak emango dizkiegu herritarrei; eta azkenik, galdeketa babesteko herritarrekin batera grabatu dugun SPOTa aurkeztuko dugu. Ziur gaude galdeketa egunerako gogoak piztuko zaizkigula!”

Apirilak 29, larunbata

■ Egunean zehar, Erabaki Fest Usurbilen, Herritzartu eta Zubiartean elkarteek antolatuta. Mosaiko erraldoian hizki bat irudikatuko dute zubietarrek. “Parte hartzeko asmoa baduzu, jakinarazi mesedez Zubiartean elkarrekin kideren bati, antolaketan lanetarako beharrezkoa baitzaigu zenbat izango garen jakitea”.

Maiatzak 3, asteazkena

■ 18:00-20:00 Galdeketa bozka emateko aukera Zubietako elizako arkupean.

Maiatzak 7, igandea

■ 09:00-20:00 Galdeketa eguna Zubietan. Bozkatzeko aukera Zubietako elizako arkupean.

■ Galdera: Euskal Herri independente bateko herritarra izan nahi al duzu?”

■ Egunean zehar, ekitaldiak. Tartean, bazkari herrikoia: txartelak aurrez salgai maiatzaren 1era arte Alamandegin. 18 eurotan helduentzat eta 10 euroren truke haurrentzat.

Informazio gehiago:

zubiartean@gmail.com
Facebook: Zubiartean
Antolatzailea: Zubiartean.



Wai 3
20
MAIZEN

Wai 3
MAIZEN



Klik! batean

Lehengoratzten

Abenduan zuhaitz bat erori zen eta frontoiko teilatua kaltetu zuen. Konponketa horiek egiten aritu dira egunotan. Aldi berean, Udalak ingurua txukundu eta frontoia pintatzeari ekin dio. Gauzak ondo bidean, asteburu honetarako amaituko dituzte lanak.

Argazkia: Ion Markel

Antton Olariaga: “Itzal zaunka CD-liburua atzekoz aurrera egindako lana izan da”

Zakilixut tira komikoari lotuta egongo da betiko. Baina bere ibilbidea askoz oparoagoa da. Jexuxmai Lopetegi musikariarekin eta Harkaitz Cano idazlearekin batera, *Itzal zaunka* (Elkar) CD-liburua osatu berri du. Datorren astean Usurbilen izango dira kontzertu irudikatua eskaintzen. Aitzakia horrekin, Antton Olariagarekin elkartu gara.

NOAUA! Oker ez badugu ulertu, argitalpen honetan zuk eman zenuen lehen urratsa.

Antton Olariaga. Atezkoaz aurrera egindako lana izan da. Eta aldiaren behin, gauzak atzekoz aurrera egin behar dira. Bazkari baten bueltan, hizketan ari gine-la, ez dakit nola musikaren gaia atera zen. Jexuxmairi adarra jo asmoz, zera esan nion: hi musiko-a? Musikoa da film bati soinu banda ipintzen diona. Hori da musiko-a. Besteekin elkar-lanean, irudiak girotuz. “Bai zera!” erantzun zidan Jexuxmaik. Gauza bat egingo diagu, bota nion. Nik 50 marrazki ekarriko dizkiat. Hiri erakutsi gabe Harkaitzi pasako zizkioat. Ze potrotaino nagok idazleak idatzi eta gu beraien esklabu izateaz. Orain alderantziz egingo diagu. Nik irudiak ipini eta ondoren Harkaitzek idatzi dezala nahi duena. Gero hiregana joango duk eta hik soinu banda ipiniko diok.

Marrazkiak egin zenituen eta marrazki horiei erreparatuz idatzi zuen gero Harkaitzek liburuko narrazioa.

Hori da. Istorio motz bat kontatu nahi nuen, eta zakur bat hartu nuen protagonista. Abiapuntua baino ez nion ipini. Ez nekien Harkaitzek nondik joko zuen.

Hori liburu grafikoari dagokionez. Baina *Itzal zaunka* ere CD batez osatzen da.



Donostiako Komikigunean batu ginen Antton Olariaga marrazkilariarekin. Maiatzaren 6an Sutegin izango da. “Itzal zaunka” izeneko kontzertu irudikatuan hartuko du parte.

ANTTON OLARIAGA

“Itzal zaunka (Elkar) bidaiatxo baten kontakizuna da; hitzez, irudiz eta kantuz azaldua”

Ezustean, Harkaitzek kantuen hitzak idatzi zituen, aparte. Liburuko istorioan sartu-atera egiten diren kantuak dira. Liburuak bere nortasuna du baina kantuek ere bere nortasuna dute. Dena den, oso modu inteligentean daude lotuta biak.

Corpus propioa du osagai bakoitzak.

Testua gehiago gozatzen da kantuekin, eta kantuak testuekin. Lana kaiera baten gisa planteatu nuen. Bai formatu aldetik eta baita diseinu aldetik ere. Bidaiatxo baten kontakizuna da, hitzez, irudiz eta kantuz azaldua.

Emanaldiarekin batera, laugarren osagai bat etorri da. Kantu batzuen bideoklipak egin ditugu eta ikuskizunean integratu ditugu. Emanaldietan, Jexuxmai Lopetegi eta Noizbehinka taldeak soinu banda ipiniko diete bideoei. Kantu guztiek ez dute bere bideoklipa izango. Eta kasu horietan, ni agertuko naiz pantailan marrazten. Iban del

Campok filmatu digu. Tempo errealean grabatu zigun; ez dago postproduktzioirik. Kamara zenital batekin fimatuta dago. Desafioa korapilatzen joan da baina oso apasionantea izan da. Oso ondo pasa dut eta asko ikasi dut.

Beraz, ez zara oholtza gainean agertuko baizik eta bideotan. Pantailan ni eta Lorena Martinez agertuko gara marrazten, lau eskuetara.

Teknika ezberdinak uztartu dituzu lan honetan. Liburuko marrazkiak arkatzez eginak daude; kontrazal barruko irudiak eta CDkoak aldiz, akuarelan.

Autonomia estetiko batzuk bilatu ditut, jendea ez nahasteko.


Hitzekin ere lan egitera ohituta zaude. Honakoan, Harkaitz Canok bete du funtzio hori. Eroso sentitu al zara?

Oso! Harkaitzekin bizkarra oso ondo zainduta nuelako. Pozik nago batez ere joan etorri horiekin: Harkaitz Canok “irudi hau sobran zagok” esan eta hortik bion artean sortzen zen eztabaidarekin.

Elkarlanean joan dira *Itzal Zaunka* liburuko istorioa indartzen, eta liburua irudite-ria borobiltzen.


Maiatzaren 6an kontzertu irudikatua eskainiko dute Sutegin

Itzal zaunka (Elkar) CD-liburuko orrietan topatu dugu ondoko definizioa: “Gidoigarriak marraztu eta marrazkigarriak gidoitzen dituen norbait. Zakilixut paraxutean jaurti zuen hegazkinetik due-la urte asko eta airean darrai hark, sekula lurrera heldu gabe. Eta tira eta tunba. Usurbilen jaioa, jaiotzen segitzen du egun. Paraxuta zabaldu? Zertarako?”. Maiatzaren 6an, CD-liburuaren inguruko kontzertu irudikatua eskainiko dute Sutegin. Antton Olariaga bertan izango denez, omenalditxo bat egingo dio Jexuxmaiz Artze Kultur Elkarteak.



Maiatzaren 6an Sutegin, *Itzal zaunka* kontzertu irudikatua.

Usurbilgo Kale Nagusian jaioa



Zakilixuten "aita" eta Ipurbeltz komikiaren sortzaileetako bat da Antton Olariaga. Usurbilen jaioa, bost urterekin Donostiara joan ziren bizitzera.

NOAUA! Jaio, Usurbilen jaio zinen. Familia ere baduzu bertan. Antton Olariaga. Neukan. Jada inor ez. Osaba-izebak bizi ziren han. Kale Nagusian jaio nintzen, elizaren parean.

Estankoa dagoen tokian edo? Karteroenean, orain soziedade bat dagoen etxe horretan.

Andatzpe elkarteak etxean. Bertan, bigarren pisuan. Etxe horretan jaio nintzen ni. Txikitako gauza asko ezagutzen ditut. Jende zaharra ezagutzen nuen. Halakoa eta halakoa,

jende berezia. Konportxo eta bere astoa, adibidez. Jakoba Errekondo gertu jaiotakoa da. Ni baino gazteago izanda ere, nik ezagutu nituenak berak ere ezagutu zituen. Eta berarekin honetaz hitz egiten dudanean, barre asko egiten dugu.

5 urterekin, Donostiara joan zireneten bizitzera.

San Martin kalean bizi ginen, hondartzatik 150 metrora. Egun osoa bainujantzian, hondartzan eta baloiarekin. Inbento handiena izan zen gure koadrilako batek plastikozko baloi

txuria ekarri zuenean. Gaez ere ikusteko modukoa zelako! Oso ondo pasatzen genuen.

Jexux Artze Kultur Elkarteak antolatuko du maiatzaren 6ko emanaldia. Garaikide izango dituzu Artze anaiak.

10-11 urterekin, Jexux Artze nire kurtsoa izan zen eskolan. Oso isila zen. Baina aiton puska zen. Fisiko aldetik inpresionantea zen kiroletarako zuen ahalmena. Joxan kanpoan ibili zen urte batzuetan, baina harremana mantendu dugu eta bere ibilbide poetikoa jarraitu dut.

Zakilixutek 40 urte beteko ditu aurten

San Miguel egunean, 40 urte beteko ditu Zakilixutek. Azalpen handirik behar ez duen pertsonaia da. Euskal imaginario kolektiboan txoko propioa lortu duelako.

Egunerokoak dakarren loturari ez dio beldurrik. "Koadernoak ideiez beteta daukat", halaxe azaldu digu Olariagak. "Bihar zer egingo duk? Ba al dakik? Askotan galdetu didate. Ez dut kezkarik. Ideia asko ditut". Eta iturria amaigabea da. "Hernanitik Donostiara

autobusean etortzearekin nahikoa duzu; segapotoarekin aldamenekoak dituen elkarrizketak entzutearekin". Kalea ere, pizgarri handia da marrazkilariarentzat. "Nahikoa da kafetegian eseri eta paisaia humanoari begiratzearekin".

Aurreko batean, aitonak ondo margotzen dituela aipatu zion Mitxel Muruak. Situazioa ere marraztu zion: "aiton batek besteari esaten dio, *urteak aurrera bai, baina gero eta baldintzatuago, eta*

gero eta kondizio gutxiagorekin". Tira komikoa berez dator. "Esaldi horrek joko asko eman dezake", Antton Olariagak zehaztu digunez. "Dozena erdi bat egin daitezke baldintza eta kondizioaren arteko borroka horrekin".

Egunero ematen dio bizitza Zakilixuti. Baina lan gehiagotan ere ibiltzen da. Ilustrazioak, diseinu lanak, posterrak... Askok dira egin (eta egiten) dituen lanak. *Itzal zaunka* da (Elkar) horren lekuko.

Jexux Artzeren omenezko zikloa

Maiatzak 6, larunbata
"Esku harriak, Oteizaren (h) aria" ikuskizuna

■ Mikel Laboa plazan, 19:30ean. Txalapartariak eta "Esku harriak, Oteizaren (h) aria" ikuskizuna. Iparraldetik etorriko da Txalamandra txalapartari-bikotea (Paxkalin eta Mixu). Usurbilgo Alazne Begiristainek eta Eli Eizagirrek ere txalaparta joko dute.

MugMus Laborategia taldeak berriz, "Esku harriak, Oteizaren (h)aria" ikuskizuna aurkeztuko du. Bertan parte hartuko dute bi dantzarik, bi musikaririk eta Uxue Alberdi bertsolariak.

Maiatzak 6, larunbata
"Itzal zaunka" kontzertua

■ Sutegiko auditorioan, 22:00etan. "Itzal zaunka" kontzertu irudikatua, Jexuxmai Lopetegi eta Noizbehinka bandarekin. Usurbilen jaio-tako Antton Olariaga marrazkilariari omenaldia egingo zaio ekitaldi honetan.



Jexuxmai Lopetegi & Noizbehinka.

Maiatzak 20, larunbata
"Jainko basatia" antzezlanak

■ Sutegiko auditorioan, 22:00etan. Txalok aurkeztutako "Jainko basatia" antzezlanak. Aktoreak: Aitziber Garmendia, Mikel Losada, Andoni Agirregomezkorta eta Tessa Andonegi.



'Jainko Basatia' obrako aktoreak.

NOAUA! APP, gure edukiak klik bakar batean

Aplikazio berri honi esker, NOAUA!ko edukiak inoiz baino eskuragarriago izango dituzu. Android zein Apple sistemetara egokitu dugunez, eskuko telefonoetan zein tablet euskarrietan ezarri daiteke. Klik bakar batean. Web orrialdera sartu gabe, NOAUA! APP aplikazioarekin zuzenean jaso ahal izango dituzu azken albisteak nahiz agendako xehetasunak.



Google Play eta Apple Store guneetan aurkituko duzue NOAUA!ren aplikazioa.

Albisteak

Aplikazioa eskuratu eta ireki orduko, Albisteak ataleko lerroburuak agertuko zaizkigu. Lerroburu bat interesgarria bazaizu, lerroburuan bertan klik egin eta instant batean zabalduko zaizu albiste osoa.

Baina NOAUA! APP-aren ekarpena haratago doa. Baliabide berri honen bitartez, etiketa bidez ere aukera ditzakegu Albisteak: Ekonomia, Jendartea, Kirola, Kultura edota Politika sailletako lotura zuzenak eskaintzen ditu aplikazioak.

ZURE MUGIKORREAN

“NOAUA! APP aplikazioarekin zuzenean jaso ahal izango dituzu azken albisteak nahiz agendako xehetasunak”

Albiste bat igo orduko, aukeran, abisu bidezko jakinarazpena jaso dezakezu zure mugikorrean. Edo ez. Abisuak gaitu edo ezgaitu, norberaren esku dago.

Agendako deialdiak

NOAUA! APP aplikazioa atal gehiagorekin hornitu dugu. Agenda kontuak jarraitzeko adibidez, oso egokia da gailu berria. Agenda-ra jotzen baduzu, datozen ekitaldien lerroburuak agertuko zaizkizu. Funtsezko informazioa baino ez: ekitaldiaren lerroburua, tokia eta eguna. Deialdi jakin bati buruzko xehetasun gehiago jaso nahi baduzu, Albisteak atalean aipatu bezala, klik

egin lerroburuan eta ekitaldiari buruzko xehetasun denak agertuko zaizkizu.

Agendako deialdiak ere abisu bidez ere jaso ditzakezu. Aukera aktibatzen baduzu, agendako deialdien abisuak iritsiko zaizkizu mugikorrera. Baina albisteekin esan dugun bezala, agendako abisuak jaso edo ez, hautazkoa da. Aplikazioan bertan ikusiko duzunez, oso erraza da abisuena aktibatzea edota desaktibatzea.

Diruz lagundua

Lan hau burutzeko, NOAUA! Kultur Elkarteak Gipuzkoako Foru Aldundiaren eta Eusko Jaurlaritzaren laguntza jaso du.

Non eskuratu?

Aplikazioa eskuratu nahi baduzu, hauxe duzu esteka zuzena:

■ NOAUA! APP Android sistemari: Google Play.

■ NOAUA! APP Apple sistemari: Apple Store.

Noaua! App

Herriko berriak beti soinean

Albisteak, agenda eta askoz gehiago Noaua! app berrian. Deskargatu doan eta jaso herriko azken berriak mugikorrean.

Eskuratzeko:

www.noaua.eus



MONDRAGON
UNIBERTSITATEA

#erronkarakoprest



Garazi Salazar

Gasteiz.
Industria Diseinuko eta Produktu
Garapeneko Ingeniaritza, 3. maila.

GRADUKO ATE IREKIAK

GOI ESKOLA POLITEKNIKOA

ORONA IDEO • **APIRILAK 29**

LARUNBATA, 10:30 / Areto Nagusia

GOIERRI • **MAIATZAK 4**

OSTEGUNA, 17:30 / Areto Nagusia

ARRASATE • **MAIATZAK 20***

LARUNBATA, 10:30 / Areto Nagusia

*Batxilergoko 1. mailan dauden ikasleei zuzenduta.

ENPRESAGINTZA FAKULTATEA

BILBAO • **APIRILAK 29**

LARUNBATA, 11:00 / Areto Nagusia

BIDASOA • **MAIATZAK 18***

OSTEGUNA, 18:00 / Areto Nagusia

OÑATI • **MAIATZAK 25***

OSTEGUNA, 18:00 / Areto Nagusia

*Batxilergoko 1. mailan dauden ikasleei zuzenduta.

HUMANITATE ETA HEZKUNTZA
ZIENTZIEN FAKULTATEA

ESKORIATZA • **MAIATZAK 6**

LARUNBATA, 11:00 / Areto Nagusia

ARETXABAETA • **MAIATZAK 6**

LARUNBATA, 11:00 / Areto Nagusia

GASTRONOMIA ZIENTZIEN FAKULTATEA
Basque Culinary Center

DONOSTIA • **MAIATZAK 13**

LARUNBATA, 10:30 / Auditorium

ETORRIKO
ZARELA
JAKINARAZI!

Dantza Eguna, iruditan



**Edertu
zaitez!**

newE
ESTETIKA

**FOTODEPILAZIOAN
TARIFA FINKOA
PREZIOAK ZURE ESKURA!
KONPROMISORIK GABE
INFORMA ZAITEZ!**



Munalurra 2, Usurbil 943 571 680



Ane
ILEAPAINDEGIA

Artzabal



**JUBILATUENTZAT
AUKERA ONENA**

Artzabal baserria 626 603 600

KALITATEZKO PRODUKTUEKIN ESTILISMOA ETA ESTETIKA LANITZEN DITUGU

APIRILEKO ESKAINTZA

GARBIKETA ETA HIDRATAZIOA:
LEHEN-30€ - ORAIN 25€

**ADINAREN AURKAKO
TRATAMENDU BEREZIA:**
LEHEN-40€ ORAIN 35€

AURPEGIKO GARBIKETA: 20€

**424 SAKONEKO NUTRIZIO
ZELULARRA:**
LEHEN-50€ ORAIN 40€



INTZA
ILEAPAINDEGIA
ESTETIKA ZENTROA

Eguerditan irekial
Nagusia 8, Usurbil - Tel: 943 36 36 41



Elexpe
ileapaindegia

- Betileen tintaketa eta permanentea
- Estetika • Tatuaiak
- Zutikako eta etzandako solarium-a

Muna Lurra 12, Usurbil • 943 370 462

GOLDWELL
ELUMEN

9.00etatik 19.00etara zabalik

ileapaindegi



mistoa

**BIOLOGO BATEK
MIKROSKOPIOZ
EGINDAKO BURU-AZAL
ETA ILEAREN AZTERKETA**

KONTSULTA DOAN!

Zubiaurrenea 4, Usurbil • 943 361 951

Aisialdia giro alai eta dibertigarrian euskaraz igarotzeko aukera



udajolas

2017
udaleku irekiak

Udajolas Usurbilen erroldatutako 4-12 (HH3-LH6) urte bitarteko haur eta gazte-txoei zuzendua dago. Uztailaren 3an hasi eta 28an amaituko da eta ordutegi hau izango du: 09:30-13:30

Gehienezko plaza kopurua 200 umekoa izango da.

Ordainketa LABORAL KUTXAKo kontu honetan egin behar da, eta garrantzitsua da **HAURRAREN IZEN-ABIZENAK** adieraztea:

3035 0140 34 1400025811

Udajolaseko guraso bilera **ekainaren 8an** (osteguna) izango da Sutegiko auditorioan, arratsaldeko **17:00etan**.

OHARRA: Behin izena eman ondoren, ez da dirurik itzuliko.

Izen emateko epea: maiatzaren 2tik 8ra (biak barne)

Lekua: Noaua!ren egoitzan (Bordaberri kalea 3)

Izen emateko ordutegia: **10:00-11:00 eta 16:00-18:00 (larunbatean itxita)**

Kuota: 83€

Famili ugaria: 67€ (Familia Ugariaren Txartela edo Familia Liburuaren kopia ekarri behar da).

Aurkeztu beharrekoa: Izen-emate orria, ordainketa-agiria eta gizarte segurantzako txartelaren kopia.

noqua



Ken Zazpi, Dema Plazan

Ken Zazpi Usurbila dator maiatzaren 13an, Hurbilago Elkartearen eskutik. 20. urtemugako bira amaierako kontzertua eskainiko dute gauerditik aurrera Dema plazan. Adi, sarrerak dagoeneko eskuragarri baitaude 12 eurotan, Bordatxo, Txirristra, Aitzaga eta Txiriboga tabernetan.

Ken Zazpi 2015eko azaroan kaleratu zuen azken lana; "Phoenicoperus" izenekoa. "Buru dugun diskorik homogeneoena beharbada, organikoena, experimentalena, freskoena", taldekoen esanetan. Lanak Usurbilekin lotura estua du, Haritz Harreguyk Urdaigang duen Higain estudioetan grabatu baitzuten. Taldearen berri, kenzazpi.com atarian jaso dezakezue.

Maiatzaren 13an larunbata

■ Eguna: maiatzak 13, larun-



Maiatzaren 13an Usurbilen joko dute, Hurbilagoren ekimenez. Sarrerak 12 eurotan, Bordatxo, Txirristra, Aitzaga edota Txiribogan eskuragarri.

bata.

■ Ordua: 00:00.

■ Tokia: Dema plaza.

■ Sarrerak: aurrez 12 eurotan, Bordatxo, Txirristra, Aitzaga eta Txiriboga tabernetan. Egunean bertan, 15 eurotan aipatu taberna hauetan eta Sutegin.

■ Antolatzailea: Hurbilago Elkartea.

Maiatzaren 7ko Bizi Kalea, dendariekin

Herritarren artean harrera ezinhobea izan duen gune

gastronomikoak osagai berriak eskaintzen dizkigu hilerro. Maiatzaren 7an ospatuko den hurrengo Bizi Kalean, jan edan, zozketa eta musika gain, Hurbilago Elkarte dendarien postuetatik barrena osteratxo egin ahalko dugu. Hamaiketako ederraz gozatu eta erosketak egiteko aukera bikaina beraz maiatzaren 7an, oraingoan, Askatasuna plazan ospatuko den azokan. Denboraldiko azken Bizi Kalea izango da.

Odolaren Mintzoa, Gaztearen Maketa Lehiaketako finalean

Ostegun honetan, apirilaren 27an gaueko 21:30ean hasita Bilboko Kafe Antzokian ospatuko den ekitaldian erabakiko da, Gaztearen 26. Maketa Lehiaketako irabazlea nor den. Bost finalisten artean hautatuko dute talde onena. Eta hautagaien artean, Odolaren Mintzoa taldekoak ditugu.



Ostegunean Bilboko Kafe Antzokian arituko dira Odolaren Mintzoa taldekoak.

Txapelketako epaimahaiak berak hautatu zuen talde usurbildarra Maketa Lehiaketako finalean lehiatzeko, Empty Files (Bilbo) eta Eneritz Furyak (Irun) taldeekin batera.

Haiekin batera lehiaketako azken faserako sailkatu dira baita, entzuleen bozka gehien jaso dituzten Passepartout

(Azkoitia) eta Huts (Trapagaran) taldeak ere.

Gaztea irrati katetik berri eman dutenez, osteguneko finala ikusteko sarrera doakoa izango da. Ekitaldia streaming bidez jarraitzeko aukera izango da, helbide honetan: eib.eus/eu/gaztea/maketa-lehiaketa/

Hiru sari jokoan

Epaimahaiak 5.000 euroko sari bat banatuko du eta BBK Live jaialdian kontzertua eskaintzeko aukera. Entzuleen Saria jasoko duenak 2.500 euro irabaziko ditu. Eta Kafe Antzokiak berak, finalean ondoen moldatzen den taldeari 500 euroko saria emango dio.

Maliko umeen aldeko ekimena abiarazi dute Ziortzako gazteek

Ziortza Gazte Elkarteko LH5 eta LH6 taldeetako kideek elkartasun ekimen bat bideratu dute: 'Estutxe solidarioa'. "Proiektu honen helburua, Maliko umei eskolako materiala bidaltzea da; beraiek ez dutelako edo hau lortzea oso zaila egiten zaielako", Ziortzatik jakinarazi diguteenez.

Material biltzea hasi da

Herrian zehar kaxa batzuk ipini dituzte eta bertan jendeak bere ekarpena egin dezake. "Kutxak Artzabal-en, Kiroldegian eta Liburutegian jarri ditugu". Maiatzaren 6ra bitartean utzi daiteke materiala kutxa horietan: arkatzak, boligrafoak, koadernoak, borragomak, erregelak, errotulagailuak, plastidekorak... Eskola materiala baino ez.

Maiatzaren 6an ikuskizuna

Materiala biltzen ibiliko dira frontoi inguruan. Eta horretaz gain, ikuskizun bat eskainiko dute Potxoenean. "Bertara sartzeko sarrera ez da diruarekin ordaindu beharko, eskolako materialarekin baizik. Ikuskizun hau Potxoenean egingo dugu maiatzaren 6an, 12:30ean". Ikuskizuna gazteek beraiek prestatu eta eskainiko dute.



Maiatzaren 6an materiala biltzen ibiliko dira frontoi inguruan. Eta eguerdiko 12:30ean ikuskizuna eskainiko dute Potxoenean.

Xabi Santxo, debutean txapeladun

Neurketa hasieratik tarte handiz markagailuan aurreratu ostean, garai-penarekin amaitu zuen Xabier Santxo Sagardia usurbildarrak, GARFE enpresarekin sinatu duen kontratuaren baitan apirilaren 21ean frontoian jokatu zuen estreinako neurketa. Bergerarekin batera jokatu zuen Santxok, izen handiko lehiakideen aurka; Titin III eta Gorrotxategi. Azken emaitzak egoki irudikatzen du Santxok bizitako estreinaldi mundiala: 11-22 irabazi baitzuen. Zorionak!



Partiden aurretik Tiburtzio Arruti zena omendu zuten.

Tiburtzio Arruti, omendua
Une hunkigarriker ere bizi izan

zen aipatu pilota jaialdian. Jaialdia bera omenaldian bilakatu baitzen. Iazko udan mendian zendu zen Tibur-

tzio Arruti herritarra omendu zuen Pagazpe Elkarteak. "Bere borondatea" goraipatu zuten, Tiburtziok pilota elkarteak laguntzeko beti agertu zuen prestutasuna. Pagazperen izenean oroigarri bat jaso zuen, bertaraturikoen txalo artean, Tiburtzioren bidelagun Arantzazu Aranburuk.

Errifa zozketa

Oparirik ere banatu zuen Pagazpe Elkarteak, errifa zozketa esker. 11.677 izan zen zerbaki saritua. Mariskada eder bat irabazi zuen aipatu errifaren jabeak, Peru Beloki Segurolak.

Euskadiko Txapelketako finalean

Asteburu honetan jokatu duten Euskadiko Txapelketako final handirako sailkatu da Usurbil Kirol Elkarteko kadete mutilen taldea. Euskal Eskubaloi Federazioak jada finkatu du lau talde lehiatuko dituen azken fase horretan jokatu diren neurketen egutegia eta ordutegia. Aldizkari hau inprentara bidaltzerakoan jokalekua zehazteke zuten oraindik. Hiru neurketa jokatu dituzte usurbildarrek, Urduliz Eskubaloi, Zarautz eta Bidasoa Irunen aurka:



Asteburu honetan jokatu dituzte finaletako jardunaldiak.

Finaleko egutegia

■ 1. jardunaldia: Apirilak 28, ostirala
17:30 Gran Camping Za-

rautz-Bidasoa Irun
19:30 Urduliz Eskubaloi-Usurbil K.E.

■ 2. jardunaldia: Apirilak 29, larunbata
11:00 Bidasoa Irun-Urduliz Eskubaloi

13:00 Gran Camping Zarautz-Usurbil K.E.

■ 3. jardunaldia: Apirilak 30, igandea
10:30 Usurbil K.E.-Bidasoa Irun
12:30 Urduliz Eskubaloi-Gran Camping Zarautz

Usurbil FT taldekoak, Bartzelonan

Usurbil F.T.-ko kideak apirilaren 13tik 17rako jai egunetan Bartzelonan izan ziren Realak bertan jokatzeak zuen neurketa ikusi eta talde gipuzkoarra animatzen.



Futbol partidak

■ Apirilak 29 larunbata

■ 10:00 Infantil neskak:

Usurbil A-Tolosa B

Usurbil B-Amara Berri

■ 16:00 Erregional mutilak:

Usurbil F.T.-Bergara K.E.

Haginak ondo dabilzanean, sabela poz!

USURBILGO HORTZ KLINIKA

FERNANDO PEREZ-MOSSO NENNINGER
ANTONIO BERNAL RUIZ DE OÑA

Kale Nagusia 10, 1.C4
Tlf 943 37 08 78

RPS: 28/17

2017
USURBIL

www.noaua.eus

USURBILGO ATARIA

Mendizaleentzat hitzordu bikoitza



Apirilaren 9an Beintza-Ziga ibilbidea osatu zuten. Maiatzaren 7an, Ziga-Erratzu artekoa egingo dute.

Egun eta asteburu pasa bana antolatu du Andatza M.K.T.-k maiatzerako.

Bidasoako Kontrabandistak ibilbideko 5. etapa:

Ziga-Erratzu mendiri irteera

■ Eguna: maiatzak 7, igandea. Abiatzeko hitzordua: autobusez, 07:30etan Oiardo Kiroldegitik.

Ibilbidea: 24 km.

Prezioa: 25 euro (autobusa + bazkaria).

Oharrak:

-Bazkaria, Erratzuko Kastonea jabetxean.

-Plaza mugatuak.

Herri Urratsera oinez

Oharra: aukeran egun bat edo biko irteera.

■ Bi eguneko

Egunak: maiatzak 13-14.

Abiatzeko hitzordua: 08:30etan Oiardo Kiroldegitik autobusez.

Ibilbidea: maiatzaren 13an Ereñozu-Lesaka (6,5 ordu) eta maiatzaren 14an Lesaka-Senpere (6,5 ordu). Gaua, Lesakako Matxinbeltzenea ostatuan (duta, loa eta gosaria. Afaria aparte ordainduko da).

Oharrak: motxilan bi eguneko otordua, toaila eta aldatzeko arropa eraman behar da.

Prezioa: 30 euro.

■ Egun batekoa

Eguna: maiatzak 14.

Abiatzeko hitzordua: 08:30etan Oiardo Kiroldegitik autobusez Lizuniagaraino. Bezperatik irteeran direnekin elkartuko dira. Nahi duenak Senpereraino autobusez joan daiteke (Senperera autobusez joateko ez dago federatua egon beharrik).

Ibilbidea: Lizuniaga-Senpere (3,5 ordu).

Prezioa: 10 euro.

■ Izen ematea: ordainketak maiatzaren 3a baino lehen egin, kontu zenbakiotako batean: Rural Kutxa: 3008 0259 1630 0543 0321.

Kutxabank: 2095 5069 0710 6848 9805.

Oharrak:

-Plaza mugatuak.

-Itzulerako autobusa, maiatzaren 14an 18:30etan Senperen.

-Andatza M.K.T.-k antolatutako irteeretan parte hartzeko ezinbestekoa izango da mendiko federatua izatea eta aseguru txartela indarrean izatea.

■ Informazio gehiago:

andatza.com

andatza@hotmail.com

Usurbil FT-ren Kirol Txokoak, giro onean



Aste Santuan Usurbil Futbol Taldeak antolatutako kirol txokoez gozatzeko aukera izan du ondoko gaztetxo taldeak.

Usurbilgo Pilota

Txapelketa,

martxan

Apirilak 29 larunbata

10:30ean hasita, hiru partiduko jokatu dira.

Apirilak 30, igandea

10:30ean hasi eta beste hiru partiduko jokatu dira.

Eskubaloitako partidak

Apirilak 29 larunbata

■ 09:30 Infantil mutilak, Gipuzkoako Txapelketa: Udarregi D Usurbil-Egia 2.

■ 11:15 Infantil neskek, Gipuzkoako Txapelketa, finalerdia: Kalari Taberna Pulpo K.E.-Leizaran Eskubaloia A.

■ 13:00 Infantil neskek, Gipuzkoako Txapelketa, finalerdia: Urnieta Altuna Autobusak-Bera Bera Urdina.

■ 18:00 Jubenil neskek, Gipuzkoako Kopa: Usurbil K.E.-Consulting Alaves.

Apirilak 30 igandea

■ 09:30 Infantil mutilak, Gipuzkoako Txapelketa: Udarregi A Usurbil-Murgil Elgoibar.

■ 11:00 Alebin neskek, Gipuzkoako Errendimenduko Txapelketa: prestakuntza saioa.

■ 12:00 Alebin mutilak, Gipuzkoako Errendimenduko Txapelketa: prestakuntza saioa.

Maiatzak 1 astelehena

■ 11:30 Infantil neskek, Gipuzkoako Txapelketa: Udarregi B-Ereintza Beissier.

Selekzioarekin

Apirilak 30 igandea

■ 16:00 Infantil mutilen Gipuzkoako selekzioaren entrenamendua, Zarauzko Antoniano Kiroldegian. Usurbil K.E.-ko jokalariek Ekaitz Ibargoien deitu dute hitzordura.

Maiatzak 1 astelehena

■ Euskadiko lurralde selekzioaren arteko torneoa Urdulizen. Gipuzkoako jubenilen selekzioan parte hartzea deitu dituzte Usurbil K.E.-ko jokalariek Joseba Errazkin eta Eneko Iribar. Eta jubenil nesken selekzioan parte hartzea, Usurbil K.E.-ko Eider Makazaga eta Nagore Lertxundi jokalariek.

Uraitz, s.l.
Igeltzeritza
Orokorra

693 059 392
uraitz@uraitz.com USURBIL

BORDATXO
taberna

Pintxo Bereziak
943 37 10 42
Zubiaurrenea 5

Inaki Iturgintza

BEROKUNTZA • GASA • AIRE EGOKITUA • ZORU BERO-EMALEA
ITURGINTZA • ENERGIA BERRIZTAGARRIAK

info@inakiiturgintza.com - www.inakiiturgintza.com
600 024 825

ALDAMU

KONPONKETAK
KALE Nagusia 10 - atzekoaldea
943 372 795

Agenda apirila

27 osteguna

- Euskararen eta hitanoaren kale erabilera datuen aurkezpena. 18:00etan Potxoenean.

28 ostirala

- Elkarretaratzea. 20:00etan Mikel Laboa plazan.
- "Helmugarik garrantzitsuena BIDEA de-
nean" dokumentala eta spot aurkezpena. 20:00etan Zubietako Kaxkapen.

29 larunbata

- Erabaki Fest Egitaraua 14. orrialdean.
- Kantu-jira. Mikel Laboa plazan 19:00-21:00.

Formazio saioak Zubietan

Zubietako Eskolako guraso elkar-
teak jardunaldiak antolatu ditu
asteotarako.

Maiatzak 2, asteartea

17:00-19:00 "Hezkuntza eta generoa",
Amelia Barquín, Mondragon Unibertsita-
tateko Humanitate eta Hezkuntza Zien-
tzien Fakultateko irakaslearen eskutik.

Maiatzak 9, asteartea

14:30-16:00 "Haur sexualitatearen bide
laguna". Elena Jimenez. Sexune taldeko
sexologia.



Elena Jimenezek haur sexualitatearen in-
guruko hitzaldia eskainiko du maiatzaren 9an.

- Formazio saioen lekua: Kaxkape.
Antolatzailea: ZUBIGE, Zubietako Herri
Eskolako Ikasleen Guraso Elkarte.

Euskararen erabilera datuak

Ostegun honetan,
apirilaren 27an,
18:00etan Potxo-
nean, Soziolinguistika
Klusterreko teknikari
Olatz Altuna usurbil-
darraren eskutik. Eus-
kararen eta hitanoaren
kale erabilerearen inguruko datu berrie-
nak aurkeztuko ditu, Usurbilgo Udalak
antolaturiko hitzorduan.



Emakumeen pala txapelketa

Usurbilgo emakumeen pala txapelketan
izen emateko epea ireki da. "Partidak
gomazko pelota edo mazizarekin izango
dira, izena ematen duten bikoteen eskae-
raren arabera". Izen-emate epea maiatza-
ren 9ra arte zabalik egongo da.

Emailaz egin behar da, hona idatziz:
pagazpe@gmail.com

"Adierazi bikoteen izenak, ze pilotare-
kin jokatzeko gustatuko litzaizueken eta
kontakturako telefono zenbaki bat".

Datozenak

Asteartean zabalduko da Udajolasen izena emateko epea

Usurbilen erroldatutako 4-12 urte ar-
teko (HH3-LH6) haur eta gaztetxoei
zuzendua dago. Uztailaren 3tik 28ra
egingo da, 09:30-13:30 artean. Gehie-
nez ere, 200 gazte onartuko dira.

- Izena emateko epea: Maiatzaren 2tik
5era eta maiatzaren 8an.

- Orduetgia: 10:00-11:00/16:00-18:00.

- Tokia: NOAUA! Kultur Elkarteen
egoitza (Bordaberri kalea 3).

Xehetasun gehiago topatuko dituzue
aldizkari honetako 24. orrialdean dato-
rren publizitatean.

Enneco Aritza kultur parkeko irteera udazkenean egingo da

Igande honetarako, apirilaren 30erako
iragarria zuten arren, Nafartarrak tal-
deak Etxarri Aranazko Enneco Aritza
kultur parkera antolatua zuen irteera
udazkenean arte atzeratzea erabaki
dute. Antza, ekainean kultur parkean
zenbait hobekuntza egitekoak dira, eta
egokiago ikusi dute, aipatu moduan,
txangoa hilabete batzuk atzeratzea.

txirriStra
TABERNA

-Plater konbinatuak
-Ogitartekoak
-Pintxoak

Kontseju zaharra, 13 Tel 943 36 04 66

ELORZA

O BRAK ETA
ERREFORMAK S. L.

661 804 688

San Esteban 5, baxua USURBIL jon.elorza@hotmail.com



FINKA ADMINISTRATZAILEA
AHOLKULARITZA ZERBITZUA
INMOBILIARIA
ASEGURUAK

943 573 693
Baxoalde 4 behea, ORIO

NOAOA
BIDAIAK

Kruzeroa taldean

Lasartetik irteera
+
Nooaren laguntzarekin

Baltikoko hiriburuetatik



ENTRETIEM Taldeko agentzia



Kruzeroa

943 373 613

info@noaoa.eus

www.noaoa.eus

Hipodromo Etorbidea 10, 2016 Lasarte - Oria

ORIANTE

LASARTE-ORIA

Institutua

Bigarren Hezkuntza



LANDABERRI ERAIKINA

1. eta 2. DBH



LARREKOETXE ERAIKINA

3. eta 4. DBH

BATXILERRA

2017-2018 IKASTURTEA
ONARPENA BATXILERGOA

Ikastetxean eskaerak:

2017ko maiatzaren 2tik 12ra arte

On-line:

2017ko maiatzaren 2tik 11ra arte

Info@oriarte.eus | Buenos Aires aldapa, 1 | 20160 LASARTE-ORIA | Tel.: 943372852 / 943372277

www.oriarte.eus

Maiatzaren 7ko Herri Galdeketa babesteko

APIRILAK 29, LARUNBATA

erabaki fest

12:00etan MIKEL LABOA PLAZATIK ABIATUTA:

MOSAIKO ERRALDOIA

M7 ERABAKI ESALDIA OSATUKO DUGU!

EGUERDIAN, FRONTOIAN:

ZIKIRO JANA

TXARTELAK ORAINDIK SALGAI:

Artzabal, Irrati, Bordatxo, Aitzaga, Txiriboga eta Patri tabernetan.

23€. Ikasle eta langabetuak, 15€.

Haurrentzako paella: 5€

18:30etatik AURRERA:

ELEKTROTXXARANGA

